



1059/2026 Ebazpena, uztailaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariarena, zeinaren bidez 2021eko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea irekitzen baita Erizaintza Pediatrikoko titulazioa duten interesdunentzat.

Erizaintzako espezialitateei buruzko apirilaren 22ko 450/2005 Errege Dekretuak Erizaintza Pediatrikoko espezialitatea barne hartzen du, eta ekainaren 17ko SAS/1730/2010 Aginduaren bidez, espezialitatearen prestakuntza-programa onartu eta argitaratu zen, espezialitatearen konpetentziak arautzen dituen. Programa hori aurrerapauso garrantzitsua da erizainen lanbidearen garapen eredu. Eredu hori Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legeak eta Erizaintzako Espezialitateei buruzko apirilaren 22ko 450/2005 Errege Dekretuak diseinatu zuten.

2026ko maiatzaren 6ko Mahai Sektorialean, ordezkari sindikalei jakinarazi zaie Pediatriako Erizaintzan espezializatutako profesionalen aldi baterako kontratazio-zerrendak ireki behar direla, lehen mailako arretan eta ospitale-eremuan. Gai hori 2026ko maiatzaren 6ko eta maiatzaren 28ko Mahai Sektorialetan negoziatu da, eta erabaki da berdinketa hausteko irizpidea Pediatriako Arreta Unitateetan lan egindako denbora izango dela, kontratazio-zerrendetan emandako zerbitzuak baloratzen diren modu berean (0,25 puntu hileko).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazio-zerrendak sortzeko eta kudeatzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren bidez, 2023ko urriaren 31ko Erabakiaren bidez onartutako aldaketekin (2023ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.). Erabaki horren hamabigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, II. eranskinean sartuta ez dauden kontratazio-zerrendak eratzeko, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpen bidez onartu behar dira, Osasuneko Mahai Sektorialean negoziatu ondoren.

Horiek guztiak horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea irekitzea, 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 8. artikulua arabera, Erizaintza Pediatrikoko titulazioa duten interesdunentzat.

Bigarrena.– Interesdunek Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Erizaintzako Unibertsitate Diplomaren titulua edo Erizaintzako Graduak titulua izan beharko dute, bai eta Pediatriako espezialistaren titulua ere, edo, bestela, titulua emateko eskubideak ordainduta izan beharko dituzte.

Era berean, aldi baterako kontratazio-zerrendetan sartzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak egiteko eta kudeatzeko 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 9. artikuluan eta indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen gainerako baldintzak bete beharko dira.

Hirugarrena.– Izena emateko epea amaitu ondoren, behin-behineko zerrendak egingo dira izena emateko eskabidea epe barruan egin duten eta baldintzak betetzen dituzten pertsona onartuekin, eta baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adierazita.



Zerrendak osatzeko lehentasun-hurrenkerari dagokionez, lanpostu funtzional berria denez, Osakidetzan kategoría horretarako erreferentziazko EPERik ez dagoenez eta, ondorioz, emandako zerbitzuak sortu dituen langilerik ez dagoenez, Aldi Baterako Kontratazioko Akordioan jasotakoa betez, egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna baino ez da kontuan hartuko, eta puntuazio bera duten pertsona asko egotea aurreikusten da.

Berdinketa hausteko irizpidea Pediatriako Arreta Unitateetan lan egindako denbora izango da, eta Kontratazio Zerrendetan emandako zerbitzuen modu berean baloratuko da (0,25 puntu hilean, espezialista-titulua lortu ondoren, **2026ko uztailaren 27ko mozketata arte**).

Erizaintza Pediatrikoko Unitateen zerrenda: jaioberriak, amaetxea, ospitalizazio-solairuak (bularreko haurrak, eskola-umeak, onkologia pediatrikoa, nefrologia pediatrikoa...), pediatriako zainketa intentsiboetako unitatea, jaioberrien zainketa intentsiboetako unitatea, pediatriako etxeko ospitalizazioa, pediatriako eguneko ospitalizazioa, pediatriako lehen mailako arreta, pediatriako kanpo-kontsultak, pediatriako larrialdiak, erditzearen egonkortzea, pediatrian trebatutako erretena, eskola-osasuna, pediatriako ebakuntza-gela programatua eta urgentea.

Berdinketa hausteko irizpidea aplikatzeko Pediatriako Arreta Unitateetan lan egindako denbora egiaztatzeko, honako hau hartuko da kontuan:

Osakidetza Pediatriako Arreta Unitateetan lan egindako denbora ofizioz zenbatuko da, eta ez da izena emateko epean alegatu beharko.

Aipatutako Pediatriako Arreta Unitateetan Osakidetza ez den Osasun Sistema Nazionaleko beste Osasun Zerbitzu batzuetan lan egindako denboraren kasuan, interesdunek mozketata arte emandako zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko dute izena emateko unean.

Kontratazio-zerrendak **etengabe irekita** daude, eta, beraz, ebazpen honetan ezarritako epearen azken egunetik aurrera aurkeztu diren eskabide guztiak 2021eko maiatzaren 21eko Erabakiaren 12. artikuluan jasotako irizpideen arabera ordenatuko dira.

Laugarrena.– Izena emateko eskaera Osakidetza aldi baterako kontratazio-zerrenden web-orrian dagoen formularioaren bidez egingo da:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/aldi-baterako-kontratazioa/webosk00-procon/eu/>

Eskatzaileek baloratu daitezkeen betekizunak eta merezimenduak bete beharko dituzte **Curriculum Vitae aplikazioan**, eta 2021LP-LC@osakidetza.eus helbide elektronikora bidali beharko dute titulua lortu den unetik aurrera Pediatriako Arreta Unitateetan emandako zerbitzuen ziurtagiria, ofizioz emandakotzat jotzen ez diren kasuetan soilik (Osakidetza ez den Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batzuetako Pediatriako Arreta Unitateak).

Bosgarrena.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Osakidetza webgunean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko uztailaren 27an amaituko, egun hori barne.

Seigarrena.– Aplikagarria izango da, bidezkoa den guztian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko 2021eko uztailaren 21eko Erabakian xedatutakoa, 2023ko urriaren 31ko Erabakiaren bidez onartutako aldaketekin, aldi baterako

kontratazio-zerrendak egiteari dagokionez ebazpen honetan jasotakoa osatzeko, baita gainerako araudi aplikagarria ere.

Zazpigarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena webgunean argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 6a



Osakidetza
Josune Retegi Ormazabal
LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE PERSONAS Y TALENTO



Miren Josune Retegi Ormazabal
LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIA